

EUSKARALDIAREN ERAGINA NEURTUKO DUGU

Euskaraldiak herritarron hizkuntza-ohituretan duen eragina neurtzeko ikerketa bat dago martxan.

Euskaraldian izena emandako pertsonen datu batzuk behar dira horretarako. E-posta bidez jasoko dituzun **3 galdetegi betetzea eskertuko genizuke**. Galdetegi laburrak (10 minutu) eta errazak izango dira.



Garrantzitsua da Euskaraldia bezalako ekimen berritzaile batek nolako eragina duen ahalik eta modu zehatz eta zorrotzenez ezagutzea. Horregatik, **komenigarria da parte-hartzaile guztiok galdetegiak bete eta ikerketari gure ekarpena egitea.**

2019an argitaratuko dira ikerketaren emaitzak eta orduan ezagutuko dugu ekimenaren eraginaren neurria.

Mila esker parte hartzeagatik!



www.euskaraldia.eus



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



#belarriprest
irango nair

Parte-hartzaileentzako aholkuak

Belarriprest izatea erabaki duzu. 11 egunetan zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu euskal hiztun guztiei, eta zeuk ere horrela egingo duzu nahi bestetan. Portaera horrek euskararen ateak zabalduko dizkizu, besteei hautatzeko aukera emango die eta denon artean erabilera handituko dugu. Eskertuko duzu, eskertuko dizute.



Ez dago ezinezkorik! Ohiturak aldatzea ez da erraza, baina posible da baldin eta solaskideak ados jartzen bagara. Aldaketa taldean egingo dugu, ez zara bakarrik egongo.



Ariketa batean parte hartuko duzu, beste milaka lagunekin batera. Euskaraldiak iraungo dituen 11 egunetan, belarriprest zarela adierazteko bi tresna izango dituzu:

- a)** Ikurra: 11 egunetan agerian eraman txapa, eta ikurra sare sozialetan; ariketa egiten lagunduko dizue zuri eta ingurukoei.
- b)** Egin gonbitea, euskara jaso nahi duzula adierazi. Eta zeu ere animatu nahi bestetan euskaraz hitz egitera.



Aztertu zure hizkuntza ohiturak: norekin, zertarako eta non erabiltzen duzun euskara, eta gehiago egiteko aukerak. Gonbidatu solaskideak euskaraz egitera eta eman aukera berriak zure euskarari.



Ariketa honetan egoera ezberdinak topatuko dituzu: lorpenak eta arrakastak batzuetan, zailtasunak besteetan. Ez etsi! Saiatzea merezi du. Prestatu zeure burua, helburua lortu edo ez, eroso sentitzeko.



Ezezaguneei buruzko usteek gure hizkuntza hautua baldintzatzen dute; pentsatu nola gainditi aurreiritziak eta ekin. Baietz hamaika egunetan uste baino jende gehiagorekin egin euskaraz!



Adostu ariketa zure ingurukoekin. Gero eta pertsona hurbilagoak izan (senideak, lagunak...), orduan eta zailago hizkuntza ohiturak aldatzea eta inertiak gainditzea, baina aldaketak eragin handiagoa du. Gonbidatu gertukoak ariketan parte hartzera.



Belarriprest izateak jokaera aktiboa eskatzen du: adierazi euskara jaso nahi duzula. Solaskideren bat euskaraz hasi eta erdarara pasatzen bada, eskatu euskaraz jarraitzeko eta, zeuk ere, nahi beste erabili.



Baliatu gainontzeko ahobizi eta belarriprestekin izango dituzun topaketa eta elkarguneak esperientziak trukatzeko. Jaso itzazu bizipenak (arrakastak eta zailtasunak) koaderno batean eta partekatu gainontzekoekin.



Tarteka elkarrizketa elebidunak sor daitezke. Egoera bakoitzean zuk ahal eta nahi duzun hizkuntza erabili, baina eskatu euskaldunei zuri euskaraz egiteko.



Zure euskara da euskararik onena! Praktikatzea da erraztasuna lortu eta eroso sentitzeko bidea. Belarriprest zara, hitz egin euskaraz ahal eta nahi duzun guztietan.



Elkarrizketetan euskarari eusteko bost estrategia: **ekin** (bota seinalea lehen hitza euskaraz eginda), **adierazi** (euskara ulertzen duzula, jaso nahi duzula), **egiaztatu** (solaskidearekin elkar ulertzen ari zaretela), **eskatu** (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko, baina euskaraz), **gonbidatu** (solaskideak euskaraz jarraitzera, hizkuntza ez aldatzera).